



10.

 Zkia

BEZEROARI ZUZENDURIKO ENPRESA PRODUKZIO ARDURADUNEN IKUSPEGITIK EMPRESA ORIENTADA AL CLIENTE: PERSPECTIVA DE LOS RESPONSABLES DE PRODUCCIÓN



Ekainaren 18an, Ezagutza Guneako enpresetako **Produkzio Arduradunak** Hobest-eko Iñaki Ibarrekin bildu ziren. Ekintza hau abian jarri berri den IKASI proiektuaren barruan kokatzen da eta Gerente eta Pertsonaleko Arduradunekin batera egingo diren hainbat ekintzetatik lehena izan da.

Landutako gaia "**Bezeroari zuzenduriko enpresa: lean-production eta antolaketa ereduak**" izan zen. Parte hartzaileek gaia lantzeko denbora gutxi gelditu zitzaizela aipatu arren, gaiaren interesa oso altu baloratu zuten.

Ekitaldiaren helburua gaia maila metodologiko eta kontzeptualean lantzea izan zen eta **irailetik aurrera bi bisita** daude programatuta kontzeptu hauek aplikatuta dituzten enpresen kasuak bertatik bertara ezagutzeko.

Ekitaldian parte hartu zutenak ondorengo enpresetatik etorri ziren: **Azcue y Cía., Danona S. Coop., Domusa S. Coop., Grupo Glual, Ibarria S.A., Lan Mobel S. Coop. eta Zubiola S. Coop.**

PRIMEROS PASOS HACIA EL MODELO DE INNOVACIÓN DE EZAGUTZA GUNEA LEHEN PAUSOAK EZAGUTZA GUNEAREN BERRIKUNTZA EREDUARANTZ

El 25 de abril el Consejo Gestor decidió iniciar la puesta en marcha de una línea de acción orientada a reforzar el papel de **Ezagutza Gunea como espacio intermedio para la innovación**. Ello consiste en facilitar el contacto entre los agentes del sistema vasco de innovación y las empresas de la comarca.

La primera acción en este sentido ha sido la colaboración del foro con el **proyecto Innova** impulsado desde la SPRI y el Gobierno Vasco. Gracias a dicha colaboración fue posible que la formación titulada "**Entrenando Líderes Smart en Tiempos de Cambio**" y coordinada por Nerea Urcola pudiera realizarse en el Palacio Intsausti los días 23 y 24 de mayo.

En las sesiones participaron, junto con otras empresas de fuera de la comarca, **Astigarraga Kit Line** y **Zurgilan S.A.L.** que son parte de Ezagutza Gunea desde hace algunos meses. Aunque ha realizado esta acción formativa en otras fechas y otro lugar, también la empresa **Mobiliario Codis S.A.** participa actualmente en el proyecto Innova.



Azcue y Cía— Azkoitiko Udala—Azpeitiko Udala— Biele Automation - Corrugados Azpeitia Grupo Gallardo - Danona S. Coop. - Domusa S. Coop. - Enbor—Florea
 Salestar Ikastetxea- Grumal - Grupo Glual—Grupo Sarralle - GSB Acero S.A - Ibarria S.A.— Ibasberri Azpeitiko Ikastola - Irarugi Ikastetxea— Iraurgi Lantzen—
 -Juaristi TSCO - Karmelo Elxegarai Azpeitiko Ikastola -Lan Mobel S. Coop - Urola Ikastola Azkoitia—Azpeitia BHI— Xabier Mumbe Azkoitiko Ikastola —Zubiola S. Coop.

- GARAI BERRIETAN EZAGUTZA ETA ELKARLANA UZTARTUZ -



IRAURGI LANTZEN, S.A.

E ZAGUTZA
G UNEA

Urola Erdiko Formazio eta Ezagutzaren Kudeaketarako Gunea
Foro para la Gestión de la Formación y el Conocimiento del Urola Medio

JUARISTI TSCO ETA GRUMAL-**EK** ELKARLAN PROGRAMAN PARTE HARTU DUTE JUARISTI TSCO Y GRUMAL HAN PARTICIPADO EN EL PROGRAMA ELKARLAN



Maiatzaren 17an Urola Lanbide Heziketako **Arotzeri eta Altzarien Fabrikazio Industrialeko ikasleak** Grumal Taldeko Pemec enpresan izan ziren. Bertako arduradunek ekoizpen prozesuari buruzko azalpen orokorrak eman ondoren, makina eta ekipoen prestaketa lanei eta makina bereziei buruz hitz egin zieten. Enpresa honen produktuak zein diren ere ezagutu ahal izan zuten bertara joan ziren ikasleek. Partaideek enpresa eta ikastetxeen artean **elkar ezagutzeko bideak jarztearen** interesa azpimarratu zuten.



Maiatzaren 30ean Ana Mari Badiola, **Juaristi TSCO**ko Pertsonaleko Arduraduna Urola Lanbide Heziketako egoitzan izan zen, **Mekanizazioko eta Mekanizazio Bidezko Produkzioko ikasleekin**. Bertan Ezagutza Gunearen barruan Ibarria S.A.rekin lankidetzan, IMHrekin garatutako formaziorako tresna bat aurkeztu zuen. Ikasleek oso ondo baloratu zuten ekitaldia eta aurkeztutako **tresna hobetzeko proposamenak** ere egin zituzten balorazio orrien bidez.

GEROLAN PROGRAMAKO IKASLEAK DANONA S. COOP. ETA GRUPO GLUAL-EN LOS ALUMNOS DEL PROGRAMA GEROLAN EN DANONA S. COOP. Y GRUPO GLUAL



Gerolan Programak lanbide heziketa egitekotan dabilzan ikasleei erabaki hau hartzeko prozesuan laguntzea du helburu. Horretarako, egurreko zikloetan interesa zuen **Xabier Munibe Azkoitiko Ikastolako** ikasle talde bat Danona S. Coop.-en izan zen maiatzaren 29an.

Balorazio orrietan ikasleei bisitaren ekarpenagatik galdetzean, besteak beste ondorengoa baloratu zuten: "Tailerra eta lana gertutik ikustea eta jabetzea lan desberdinak daudela eta bakoitzak bere maila akademikoa duela. **Zenbat eta ikasketa gehiago, orduan eta aukera gehiago**".

Ikasberri Azpeitiko Ikastolako ikasle talde bat, bestalde, **Glual Hidráulica**-ra joan zen ekainaren 6an. Ekitaldian parte hartu eta balorazio orriak bete zituzten ikasleen hitzetan ondorengoa egin zuten:

"Pertsonal eta produkzio arduradunen eskutik, enpresaren ikuspegi orokorra eta teknikoa eman digute: **produktuak, prozesuak, bezeroak, lanpostuak eta beharrezko kualifikazioa...**"

Bisita honekin 2006/07 ikasturteari dagozkion Gerolan Programako ekintzak amaitu dira. Uda ondoren, ikasturte berriaren hasierarekin batera, ikastetxeak ekitaldi berriaren plangintzan hasiko dira.





IRAURGI LANTZEN, S.A.


EZAGUTZA
GUNEA

Urola Erdiko Formazio eta Ezagutzaren Kudeaketarako Gunea
Foro para la Gestión de la Formación y el Conocimiento del Urola Medio

ZEIN DA EZAGUTZA GUNEAREN BALIO BEREZIA? SEI IKUSPEGI, SEI PROPOSAMEN ¿CUÁL ES EL VALOR ÚNICO DE EZAGUTZA GUNEA? SEIS MIRADAS, SEIS PROPUESTAS

Badira hilabeteak Ezagutza Gunean, talde bakoitzak egiten dituen proiektuez gain, denon artean definituriko eskualdeko proiektu bat izan behar genukeen edo ez aztertzen ari garela. Ezagutza Gunea Iraurgi Hirian deitu genion prozesu honi. Beronen helburua **Ezagutza Guneak bailararen etorkizunean jokatu beharreko paperaz hausnarketa** egitea da.

Prozesua egituratzeko hitzarmena sinatu genuen Orkestra, Lehiakortasunerako eta Garapenerako Institutuarekin eta lehen pausoa beraiek sortutako datu base batean oinarrituz Iraurgi Hiriaren lehiakortasun diagnostiko bat egitea izan zen. Bigarrena, diagnostikoan oinarrituz Ezagutza Gunearen balio bereziko proposamena definitzea. Beronek Ezagutza Guneak zer izan behar duen jasotzea du helburu, kide guztiontzat barneratzeko erraza izango den irudi baten bidez. Ondorengoak dira **sei lan-taldeen ekarpenak**.



Ezagutza Gunea,

Konpromisoa denen mesederako migrazio baterako
El compromiso para una migración en la que todos ganen

Ezagutza Gunea,

Energia eraldatzailea

- ◆ Elkarlanetik sortua
- ◆ Eskualdea indarberrituz
- ◆ Munduan lehiatzeko

Ezagutza Gunea,

Energia transformadora

- ◆ Generada a través de la colaboración
- ◆ Para revitalizar la comarca y
- ◆ Competir en el mundo



+ lan-talde teknikoa



Ezagutza Gunea,

Eskualdean gizartea AKTIBAtzeko topagunea
El punto de encuentro comarcal para ACTIVAr la sociedad

Eskualdeko ikastetxeen ordezkariak Kudeaketa Kontseiluan

Ezagutza Gunea,

Iraurgi Hiri berritzailearen arima

El alma de la Iraurgi Hiria Innovadora



Ezagutza Guneak gonbidapen bat izan behar du,
Ireki atea bide berriei
Ezagutza Gunea debe ser una invitación,
Abre la puerta a nuevos caminos

Ezagutza Gunea,

Ilusioa errealitate egiten duen olatua

La ola que hace las ilusiones realidad



Prozesuaren emaitzak jasotzen dituen txostena eskuragarri dago 943 853377 telefonora deituz.




IRAURGI LANTZEN, S.A.

E ZAGUTZA
G UNEA

Urola Erdiko Formazio eta Ezagutzaren Kudeaketarako Gunea
Foro para la Gestión de la Formación y el Conocimiento del Urola Medio

HEMOS PRESENTADO LA MEMORIA 2006 DE EZAGUTZA GUNEA Y EL LIBRO SOBRE LAS PEQUEÑAS EMPRESAS EZAGUTZA GUNEAREN 2006KO TXOSTENA ETA ENPRESA TXIKIEI BURUZKO LIBURUA AURKEZTU DITUGU

El 10 de mayo, en el Palacio Intsausti tuvimos un acto de presentación de **la Memoria 2006 de Ezagutza Gunea** y del **libro** que recientemente hemos publicado con los resultados del **diagnóstico de competitividad realizado por 50 empresas** de entre 10 y 50 empleados del Urola Medio. Al acto fueron invitados por una parte los medios de comunicación de la comarca, y por otra, las asesorías de la zona, para quienes se consideró que el libro podía ser de interés.



Con este acto se dio inicio a la distribución del libro que se llevará a cabo en gran medida en los encuentros que se realizarán durante los próximos meses. Si algún miembro o colaborador del foro no puede asistir a dichos actos, puede **solicitar un ejemplar** poniéndose en contacto con el equipo técnico.

ERRELEBOA KUDEAKETA KONTSEILUAN RELEVO EN EL CONSEJO GESTOR



Azkena eginiko Kudeaketa Kontseiluan hainbat errelebo prozesu jarri genituen abian. Alde batetik, **Mikel Amilibiak** (Sidenor), duela bi urte hasitako Lehendakaritza aldiari amaiera eman dio. Guztira bost urte egin ditu Kontseiluan, Ezagutza Gunearen hasieratik baitago bertan. Lehendakari moduan **Conchi Azpiazuk** (Lan Mobel S. Coop.) hartu du bere lekua eta enpresen izenean sartu den kontseilukide berria **Maria Dominguez** (Domusa S. Coop.) da.

Bestalde, legegintzaldi berriaren hasiera dela eta, udaletako ordezkartzetan ere aldaketak egongo dira. Azkoitiko Udalaren izenean **Iosu Bastida** arituko da Kontseiluan aurrerantzean eta, ondorioz, **Jose Luis Arrizabalagak** bere lau urteko ordezkartza amaitu du. Buletina idazteko orduan oraindik ez dago erabakita Azpeitiko Udala nork ordezkartuko duen.

Ezagutza Guneako kide guztien izenean,
Eskerrik asko Mikel eta Jose Luis !!